



# Egia bizirik

## EGIAKO AUZO ELKARTEA

Elkartearen bloga:  
<http://egiabizirik.ourproject.org/>

Elkartearen Twitter kontua:  
<https://twitter.com/EgiaBizirik>

Batzarraren bloga:  
<http://egiakoauzobatzarra.wordpress.com/>

22. ZENBAKIA

2014 EKAINA

[egiabizirik@gmail.com](mailto:egiabizirik@gmail.com)

### hitzaurrea

# Kaixo Egiatar!

Seihilabete hontako alean Urtarriletik honera eskuartean izan ditugun erronka eta proiektuen berri eman nahi dizuegu. Ohiko ekintzez gain zine foruma, hitzaldiak, informazio banaketa, udalarekin eguneroko harremana etab. kasu, bi borroka aipatzea ezinbestekoa da. Biak ere Auzo Batzarrak (Egia Burujabe) bultzatuak besteak beste. Alde batetik frontoiaren afera, aspaldiko aldarrikapena da auzoan udal pilotalekua zabalik egotea eta lehenetsua edukitzea auzotarrek honen erabilpenerako, batez ere eguraldi kaxkarraren aurrean babesleku delako eta elkar harremanerako tresna itzela delako bai egunerokotasunean edota noizbehinkako ekintza (bazkariak, ekitaldiak, jarduera kulturalak) ezberdinak erdiesteko. Okupatzekotan izan ginen udal teknikari batzuen jarrera ezkorra eta udal gobernuaren ixiltasunagatik. Azkenik ekintza zuzenera jotzeaz geundela udal ordezkariak deitu gintuzten bilera batera eta behin-behineko irtenbide bat eman genion arazoari, baina guk gure aldetik geure eskaera eta konpromezuak azaldu dizkiegu, behin betiko aterabide bat proposatuz, ikusi beharko da ze erantzun ematen diguten, kontuak kontu festa bat egin genuen Maiatzean garaipen txiki hura ospatu eta atxikimenduak jasotzen jarraitzeko.

Bestetik Auzoetxearen proiektua dugu zeinetan Onkologikoaren okupazio-desalojoaren ondoren lanean segitu nahi dugun, bide hortan Kutxarekin elkartu gera beste auzotar batzuekin batera espazio hori auzoarentzat eskatuz eta aldi berean Ametzagaina kultur elkartearen lokalean egosten ari den proiektuan sarturik gabiltz beste talde anitzekin auzoetxera gerturatu litekeen esperientzia autogestionatu, horizontal, euskaldun eta sortzailean, Txondorra Kultur Gunean hain zuzen.

Guzti hontaz gain ezin aipatu gabe utzi Tejeria kalearen peatonalizazioan emandako aurrerapausoak, Tabakalerarekin elkarlanean eraikitzen ari geran txiringailu mugikorra, udal batzarretan parte hartzen aurrekontu parte hartzaile batzuen bidean, Ikurrinari omenaldia...

Hontaz gain jakitun gara auzoa saretzen dugula lanik handiena egiatarrok, eta lan hortan auzo elkarte prestatu eta ekintzaile batean sakontzen jarraitu nahi dugu, muskulo soziala haunditzen segi behar dugu auzoko ehun ezberdinak kontuan hartuz eta hauek elkar zeharkatzen, begipuntuan helburu argi bat dugularik: Eraldaketa sozial, ekonomiko, kultural, genero/al bat azken finean. Hortxe gure erronka auzo elkarte bezala Egiako sektore ezberdinen aktibazioa/n laguntzea, hauspotzea.



# Segi ondo Egiatar, aldapan ikusiko gara!

## Egiak Bideg rria


**D**onostiako udaletxeko mugikortasun departamenduak Egian bidegorria jartzeko 2 proposamen luzatu zizkigun apirilean, proposamenak irekiak zirela eta auzotarrek batera garatu nahi zituela jakinarazi ziguten, horregatik Egia Bizirik auzo elkartetik lan talde bat osatu genuen proposamenak aztertzeko, bildu ondoren talde honek proposamen berri bat helarazi zion udaletxeari eta momentu honetan aztertzen ari dira, proposatutakoaren ezaugarriak ziren bi norabideetako bidegorri bat osatzea gaur egun dauden bidegorriak lotuz, alegia Mandasko Duketik hasi eta Loiolako zubi ondoan dagoen Erriberako bidegorriraino, eta bestetik San Kristobal kaletik Plaza haundirainoko zatia, bidegorria ezartzen den eremu hauetan trafikoaren abiadura moteltzeko neurriak eskatu ziren eta bidegorriak ez dagoen auzoko beste eremu guztietan 30 gunea ezartzea.

### EB Bidegorrien Proposamenak/Propuestas para Carril Bici de EB




EGIA KALEA/CALLE EGIA




TEJERIA KALEA/CALLE TEJERIA



EGIA-LOIOLA LOTURA/UNIÓN EGIA-LOIOLA



TABAKALERA ING./ENTORNO TABAKALERA



# Eskubide Sozialen Karta

Otsaila eta martxo bitartean, zenbait bilera egin ziren auzoan Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren inguruan. Hainbat sindikatuk eta bestelako eragileek bultzatutako ekimen honetako talde sustatzaileak zirriborro bat prestatu zuen, eta Egiako bileretan parte hartu zuten lagunek (80tik gora) hainbat ekarpen eginezkioten dokumentuari. Bilerak sei arlotan banatu ziren (Gizarte-Ekonomia, Emakumeak, Gazteak, Hizkuntza-Hezkuntza, Kultura eta Lurralde-Elikadura Burujabetza).

Euskal Herriko herri eta auzoetatik heldutako ekarpenekin azken bertsioa osatu zen, Asanblada Orokorra Karta onartu zuen maiatzaren 31an eta bere aurkezpena ekainaren 14an egin zen Bilbon. Orain Kartaren edukia zabaltzeko garaia da: hain zuzen, Karta ez da testu soil bat baizik eta denon artean gizarte justuago bat eraikitzeko tresna baliagarria. Datorren ikasturtean Kartaren gizarteratze kanpaina abiatuko da: adi egon!

Kartaren edukia lortzeko eta informazio gehiagorako:

<http://www.eskubidesozialenkarta.com>



# Egia Euskaraz Eguna

Aurten, bi urtez behin egiten den moduan, Egia Euskaraz Eguna ospatu dugu. Aurtengo egitaraua zabala izan da eta euskara plazara ateratzeko saiakera berezia egin da. Horretarako "Egia plazara, dantzara!" leloa aukeratu eta euskara eta dantza uztartzeko saiakera egin zen. Egitarrei Zazpi Jauzi erraldoi bat egiteko gonbitea luzatuzitaien eta plaza, dantza bezelako jardun ludiko bat eta euskara uztartu genituen. Emaiza ikusgarria izan zen eta Maiatzaren 24ean dantza eta euskara izan ziren protagonista.

Bestalde egunean bertan, gaztetxoentzat tailerrak, Tejerian mural margoketa eta bazkaria eduki genituen eta bazkal ondoren Txantxariak eta erromeria.

Euskarak hala ere izan zuen besterik Maiatzean, horien artean 2 hitzaldi, David Anaut-ena bata eta Aingeru Mayor-ena bestea eta 2 erakusketa, Euskal baseritarren jantzia eta "Euskara, ospeletik eguterara" leloarekin bestea

Egian euskaraz bizitzeko ahaleginean jarraitzen dugu.

Zatoz euskarara eta mundu zoragarri bat deskubrituko duzu!!!

# Udalaren "Auzoak indartzen" ekimena

Donostiako "Aurrekontu partehartzaileak" ekimenaren barruan, udalaren "Auzo eta Herriak Donostia indartzen" programaren bigarren fasean, maiatzaren 20 eta 27an bi bilera egin ziren Kultur Etxean. Auzotarrek dituzten kezak eta proposamenak aztertu ziren, horietatik 15 aukeratuz Udalari jakinarazteko, 5 ataletan sailkatuta. Udal Gobernuak herritarrek egindako proposamen hauek sakonki aztertuko ditu, eta udazkenean erantzun publikoa emango die: 2015 urteko Aurrekontu Proposamenean islatuko ditu egingarritzat dituen proposamenak eta gasturik behar ez dutenak nola gauzatuko diren adieraziko da.

Egiako bizilagunek aukeratu zituzten 15 proposamenak ondoren agertzen dira. Udalak eskatu bezala, atal bakoitzean lehentasunaren arabera sailkatu dira.

## Kultura, Euskara eta Kirola atalean:

- 1.- Udal kirol ekipamenduak (frontoia bereziki) libre daudenean auzotarrek erabili ahal izatea.
- 2.- Kultur etxearen kudeaketa partekatua izatea.
- 3.- Kultur etxeko gune libreak auzotarrek erabili ahal izatea, kanpotik sarrera zuzena bermatuz.

## Hirigintza eta Mugikortasun atalean:

- 1.- Autobus zerbitzu berriak jartzea (bereziki goi aldeko auzoetan) eta daudenak hobetzea eta ordutegia zabaltzea.
- 2.- Plaza Haundin espazio estali egokia sortzea.
- 3.- Iberdrolaren azpiestazioa dagoen lekutik ateratzea eta lurzoru hori beste erabileretara bideratzea.

## Garapen ekonomikoaren atalean:

- 1.- Komertzio txikiek itxi ez dezaten neurriak hartzea.
- 2.- Merkataria partaide izatea merkataritza-politikak diseinatzen direnean.
- 3.- Komertzio txikia sustatzeko kanpainak martxan jartzea.


## Gizarte ongizatea eta Herri babesa atalean:

- 1.- Gizarte zerbitzuetako bulegoak auzoan bertan egotea.
- 2.- Lapurretak eta bortxaketak saihesteko udaltzainak leku bakartietatik, gauzez eta oinez ibiltzea.

## Zeharkako gaiak:

- 1.- Auzoetxe proiektuarekin aurrera jarraitu ahal izateko Udalaren babesa.
- 2.- Auzotarren buletina etxetara banatzea Udalaren baliabideekin, komunikazio-panelak jartzea, atari digitala egiteko laguntze ematea.
- 3.- Auzoaren kale-bizitzarako ekintzak antolatzea: azokak, musika...

# Tejeria kalea oinezkoen eremua ezartzeko proposamena



Egian oinezkoentzako eremuak ezartzeko ideia aspaldikoa da, horregatik duela jada urte bete **Egia Bizirik** auzo elkartetik ideia hau garatzeko lan talde bat sortu genuen, lan talde honek proposamen bat garatu zuen Tejeria kalea oinezkoen eremua izan zedin, jakinik garai hauetan horrelako egitasmo bat gauzatzeko obra handia eskatzen duen proposamenik ez zela egingo eta auzoan aparkalekuen arazoa handia dela, Tejeria oso oinezkoentzako ezarri orde behintzat eremu bat kotxez erabat libre izatea erabaki zuten, kotxeentzako aparkalekurik gabe eta kotxeen trafikoa mugatuz garajeetako sartu-irtenetara bakarrik, beste eremu batean (Aitor Ikastolaren ondokoa) gaur egun dagoen espaloari eremu bat gehitzen zaio oinezkoentzat eremu zabalgoa osatuz, zebra bide guztiak igotzen dira espaloien altuerara oinezkoen pasabideak hobetuz eta kotxeen aurrean oinezkoen lehentasuna emanez, azkenik egitasmo honek kotxeentzako aparkalekuak galtzeak ekarriko lituzkenez proposatzen da Tejeria kalean eta San Kristobal kaleko aparkaleku guztiak bertakoentzako bakarrik izatea.

# Egiako Auzoetxea

Zerk eginen gaitu aske? Hori izan da EGIAKO AUZOETXEA proiektuaren abiapuntua. Ez da galdera xume ez, ezta hark agerian uzten digun erronka. Urratsez urrats egin beharreko bide horren lehen pausu bat da EGIAKO AUZOETXEA proiektu idatziak islatzeko izan duen asmoa.

Aisialdi, politika, kultura, arte eta euskara arloetan ugariak izan dira historikoki Egiako bizilagunok aurrera ateratako ekimen herrikoiak. Guztietan abiapuntua BURUJABETZA kolektiboa eta norbanakoa izanik. Hala ere, bada auzotarron artean azkenaldian zabaldua den sentimendu bat: faktore desberdinengatik geroz eta zailagoa dela horri eustea. Toki edo kontestu jakin batzuk kenduta geroz eta zailagoa zaigu belaunaldi desberdineko pertsonekin era natural batean harremantzea, baita belaunaldi berdinekoen artean ere.

Hargatik, bada ere azken urteotan auzotarron artean gailendua den behar bat: mugimenduen saretzerako eta elkarezagutzarako espazio edo gune fisiko eta autogestionatu baten beharra.

Horri erantzutera etorriko litzateke idatziz jaso nahi izan dugun proiektua, EGIAKO AUZOETXEA, gune bat non auzoa islatua egongo den bere osotasunean, non alde batetik, gizarte talde bakoitza, gazteek kasu, (ezau-garri, problematika edota interes komunak izateagatik) talde bezala haien behar eta interesengatik borrokatuko duten, eta beste alde batetik behar eta interes desberdinak edo berdinak dituzten adin desberdineko jendearekin harremandu eta borroka bateratuak bultzatuko ditugun.



Kutxa tiene este espacio vacío. Aquí podría hacerse realidad el proyecto

Zergatik ordea? Egiako adin-tarte guztietan daude gune honek ase litzakeen beharrak, behar desberdinak segmentu bakoitzean ziurrenik, horregatik deritzogu ezinbestekoa talde bakoitzaren parte hartze aktiboa erabaki guneetan eta kudeaketan, norberak baitaki hoberen zer behar duen eta nola egin nahi duen. Beraz, auzoetxeak aukera ematen digu belaunaldi desberdinetako jendea elkartu eta gune bat konpartitzeko, elkar-ezagutu, elkarrengandik ikasi eta harremanak sendotzeko.

**HORIXE BERA DA EGIAKO AUZOETXEA. EZER BIZIRIK UZTEN EZ DUEN EGUNGO SISTEMAREN BASAMORTUAN PIXKANAKA, GUZTION ARTEAN ERAIKIKO DUGUN OASI ERREBELDEA. LIBRE EGINEN GAITUEN OASIA. HERRITARREK HERRITARRONTZAT SORTUTAKO PROIEKTUA.**

## Se amplía y consolida la solidaridad vecinal por medio de Auzolan y Batzarra

En el barrio se empieza a naturalizar la costumbre de juntarnos en Asambleas Generales-“Auzo Batzarrak” para detectar y solucionar a las necesidades comunes. Para hacerlas frente se vienen consensuando uno o varios trabajos comunitarios (Auzolanak). El año pasado, el trabajo común se plasmó en pintar Plaza Handi y en la creación de los grupos de trabajo de “Denbora Kutxa” y “Auzoetxea”.

Recogiendo esta positiva experiencia, el 13 de enero de este año un grupo de 10 vecinas hizo un llamamiento general para reactivar esta asamblea de barrio “Egiako Auzo Batzarra”. Para prepararla, se constituyó como

grupo dinamizador que, en varias reuniones previas, fijó la fecha de su realización, la publicidad y el desarrollo concreto (presentación, metodología, etc.) de la jornada.

Finalmente “Egiako Auzo Batzarra” se reunió en dos fases: el domingo 16 de marzo, se desarrolló a modo de una “lluvia de ideas” en donde cada vecina-vecino propuso realizar la tarea comunitaria (“auzolan”) que consideraba más conveniente para el barrio. Recogidas todas las propuestas que se hicieron, en la segunda fase de esta Asamblea General, que se celebró el sábado 5 de abril, se consensuó, como “auzolan” prioritario, la apertura gratuita del frontón de Egia a toda la vecindad.

# Egia necesita el frontón abierto

Desde la desaparición del de Atotxa, el barrio se quedó sin frontón abierto porque el actual que está junto al Polideportivo está habitualmente con las puertas cerradas impidiendo el acceso a cualquier persona excepto a los que lo han “alquilado” previo pago o las escuelas de pelota que tienen reservadas algunas horas a la semana.



El frontón actualmente está infrutilizado, podría estar abierto de par en par en vacaciones escolares, fines de semanas y durante todos los días del año permitiendo la entrada a niñas, niños, jóvenes y mayores cuando llueve, hace frío o simplemente para divertirse jugando a pelota u organizando fiestas populares. Como en la inmensa mayoría de los frontones de Donostia y Euskal Herria.

Desde un principio el barrio mostró su disconformidad haciendo reclamaciones, recogiendo firmas, idas y venidas al Ayuntamiento... hasta que la constancia vecinal ha empezado a dar sus frutos y el Pleno Municipal aprobó recientemente que en el frontón de Egia, así como en otras instalaciones de la ciudad, se facilitara el acceso a toda la ciudadanía para su disfrute.

Como consecuencia inmediata, **Egia Bizirik** ha organizado las Fiestas de Primavera durante tres sábados en Mayo y se ha utilizado el frontón de forma abierta y sin ningún problema.

Pero aunque hemos avanzado, todavía queda por concretar con el Ayuntamiento las normas de utilización, horarios de cierre y apertura, etc. La ordenanza que regule el uso del frontón de Egia y el resto de instalaciones de Donostia se aprobará hacia Octubre. Por nuestra parte seguiremos en contacto con los responsables municipales hasta conseguir

**iel frontón abierto!**



Desde esa fecha, un grupo de trabajo de voluntarias-voluntarios se está ocupando de sacar adelante, con todas las consecuencias, la apertura total de nuestro frontón. Como primer paso, se ha conseguido que los tres últimos sábados de mayo (17,24 y 31) fuera gratuito y estuviera disponible para otros tantos actos festivos-reivindicativos.

Asimismo continúan activos los grupos de trabajo de “Auzoetxe”, qué promovió la simbólica ocupación del “Onkologiko”) y “Denbora Kutxa” que, entre otras tareas, está preparando una aplicación informática que posibilite su puesta en práctica.

